

Arraunaren aitzakiarekin, sagardoa eta Handmade Trintxerpen

by Pasaiaiko Hitza on 2013/06/10 in AGENDA, AGENDA PASAIA, AISIA



Arraun taldeko kideak, larunbateko bi ekimenen kartelekin

2013ko sasoiari Trintxerpe-Illunbe Arraun Elkartek izango duen taldea aurkezteko aukera izango da datorren larunbatean Trintxerpen bertan. Baina arraun taldeko kideak ez dira mugatuko bere horretan traineruan ibiliko diren kirolariak aurkeztera. Horrela, larunbat goizean eta arratsaldean Handmade Azoka egingo dute Gudarien Enparantzan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. 12:00etan izango da arraunlarien aurkezpena, eta arratsalderako Sagardo Jaia egingo dute, 18:00etatik 20:00etara.

Larunbatean, beraz, aspertzeko aukerarik ez da izango Pasaiaiko barrutian Trintxerpe-Illunbe Arraun Elkartek antolatu dituen ekimenei esker.

📌 **Jaiak, pasaia, trintxerpe**

◀ Lezoko Jai Batzordeak bilera egingo du bihar

Errenteriako Txepetxa elkartera sartzeko, aldaketak ▶

Profile

Sign in with Twitter Sign in with Facebook

or

Name

Email

Not published